

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agustin Agiriano Arenaza

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1921-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Intxaurtxueta auzoko Galartzaetxe baserrian jaio zen 1921ean. Ama Oro auzoko San Juan etxekoa zen. Mesedetakoekin hasi zen eskolan; geroago Don Ismael "Republikanuarekin" ikasi zuen. 1938. urtean Benardiño Zubiaren fabrika hasi zen lanean, kanoientzako espoletak egiten, baina sei hilabete besterik ez zituen egin bertan. Bizi guztia baserrian eman du, baina bere jaiotetxea bota egin zutenez, Atxorrotz bidean eraiki zuten etxe berrian bizi izan zen. Arrasateko Gesalibar auzoko Zabolaineko Dorotea Jauregirekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ESK-051

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-28
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ESK-052

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-28
- **Iraupena:** 11 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Eskola kontuak

- **Erref:** ESK-051/003
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolara mojetara, Mertzadarietara, joan zen sei urte arte. Gero maisuarekin ibili ziren, don Ismaelekin, 60 umetik gora elkarrekin egoten ziren. Eskolak zelan antolatzen zituzten azaltzen du. Gerraostean mojak ezkutatu egin ziren. Maisua errepublikazalea zen eta Donostiara joan zen errepublika irten zenean.

Transkripzioa

-Galartza etxiori Eskoriatzan kalia dago ala auzounan baten?

-Ez, kale partia hartzen dau.

-Eta han eskolara nun fan ziñen zu?

-Eskolara? Ba lelengo monjakin-da hantxe eskola apur bat ikasi geuen xei urte artien eta gero maistruaz, eta maistruak ba mutiko larregi euken eskolie erakusten da, hirurogeta lau edo hiru ero eztakit zenbat gitzen han da.

-Danak alkarrekin?

-Alkarrekin, klaro. Korruok ifintten zittuen han gehixuao dakixenekin da haik izeten zittuen maistruak eta gero berak pasilluen aldamenetara ba zer onak euken, eta han pasilluetan berak espliketan zittuen gauzok eta guk hartu ein bihar izeten gittuen edo eskribidu edo berak esaten zittuen gauzok.

-Zein zan maistruoi?

-Don Ismael.

-A, zu orduan Hermano Luisekin etza ibilli?

-Ez, ez.

-Monjakin Merzedarixetan ibilli ziñan?

-Bai, orduen monjak hor ezen da. Gerraostien ezkutau zien.

-Zu orduan hogeta batekua zara. Zu gerra aurrian eskolan ibilitakua.

-Bai, maistruakin genbitzen, republikanua ero zan bera da republikiek trinfau euen egun-egunetik republikiek trinfau dauela ta jarei(n) oskun eskolatik; bai, eskolatik jarei(n) oskun. Bera republikanua zan da. Entzutia dauket, eztakit holan dan edo, bera Donostiara fan zan hemendik eta Donostian txarto; klaro, honek regimen honek honek gorri antzerakue ta zerok txarto hartzen zittuen.

-Hau zan Don Ismael?

-Bai.

-Eta republikanua bera orduan.

-Ba bere ideia hori baeukan itxuria ta. Bai.

2. Eskolan erdaraz...bestela zigorra

- **Erref:** ESK-051/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:06:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolak erdaraz jasotzen zituzten eta euskaraz egitearren zigortu egiten zituzten. Zigorrak azaltzen ditu.

Transkripzioa

-Eskolak euskeraz ala erderaz?

-Erderaz (ibiltten) gitzen.
-Eta euskeraz egittiagatik kastigatzen zifuen?
-Bai, halako bolatxo bat euen, euskeraz itten dauenari bata bestia (zainttu) ta emun da hola ibiltten gintzen.
-Eta gero bolatxua euenak azkenian...
-Ba gero azkenengo geldiketan danak ba urteixeran ba gero "No hablar en vasco" hogeit bider edo zera eraitten oskuen; hurrengoko egunien kopixioi eruen biher izeten gutsen.
-Don Ismaelekin hori?
-Bai.
-Gerra aurretik kastigauta, e?
-Bai. Gerra aurretik be bai, bai. Gerra ezkeron enitzen ibili. Enitzen ibili.

3. Gorriak Atxorrotzen

- **Erref:** ESK-051/005
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra sasoiari, Eskoriatzan gelditu ziren. Gerra hasi zenean, Atxorrotzen agertu ziren gorriak, eta konfiskatu egin zuten marianisten komentua Ederlan fabrika dagoen lekuan zegoena. Gero militarrek Gasteizen ofentsiba jo behar zutela-eta, Bizkaia aldera joan ziren, horren beldur zirelako.

Transkripzioa

-Zu gerria hasi zanian hamabost urteko mutikotia.

-Bai.

-Eskoriatzan egon ziñen edo nunbaittera fan ziñen?

-Ez, ez. Nik neure denporia dana Eskoritzan emun dot.

-Ez ziñan iñora fan, ezkutau edo gorde edo?

-Ez, ez. Eskoritzan emun dot nik neure...

-Eta zu akordaitten za hemen militarrek ebitzenian? (...) Gerra denporan bonbarik edo tirorik edo egon zan?

-Bai, setienbrien gerria urten euen urtian, setienbrien hogeta bixen, hiruen edo agertu zien hor Atxorrotz edo, hor bakitzu gaiñien nun dauen? Horra.

Da gorrixek edo gorri usaiñekuek mutil mordua hor ezen gaiñien; da komentu bat auen, hor Ederlan fabrikia. Han oiñ beste fabrika bat eiñ daue han, Eskoritzara gora zatozela ezkerretik, da han auen komentu haundi bat, marianistak; marianista euzen han. Da ha euki euen eurak rekisauta.

-Kuartel modura edo?

-Bai.

-Hori gorrixak ez, hori bestiak?

-Gorrixek, gorri aldekiek, bai. Eta gero handik janoi surtiduten euen mendi gaiñien ezenok, hemendik bistan dau hori mendixoi. Ba hortxe, Degurixa gaiñien edo, bai, hortxe gaiñetan ezenok. Gero ofensibie jo biher euela militarrok Bitorixen edo zerien. Eta ez eukien armaik eta ezebe, eskopetekin ezen bakarrik orduen, da danok gorri aldera, harutza fan zien danok, Bixkai aldera fan zien; al dauen guztiok, horren billur euzenak danok hara fan zien. Batzuk hemen be geldittu zien, bai, baiña asko fan zien harutza.

4. Militarrek gorriei erasoka

- **Erref:** ESK-051/006
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:12:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Militarrek, Gasteiztik Eskoriatzara sartu arte, ez zuten ezer aurkitu; eta, bitartean, armak gorriei heldu zitzaizkien. Beraien etxeko leihotik ikusitakoa kontatzen du. 15 bat lagun egon ziren armak heltzerakoan; eta, militarrek heldu zirenean, inguruko basoetan ezkutatu ziren. Hurrengo egunean, militarrek ezer gabe etorri ziren lasai asko, kantuan... Apotzaga auzoan blindaje bat zuten gorriek eta militarrek Apotzaga hartzera joan ziren. Mendiaren lepo batetik burua erakustearren. alde guztietatik ekin zieten tiroka. Mendiaren lepoan, hamar gorri inguru bertan hil ziren. "Kamiñero"ei ere eraso egiten zieten, gorpuak edo zaurituak jasotzen joaten zirenean.

Transkripzioa

-Hemen burrukarik egon zan gorrixen eta bestien artian?

-Bai, hurrengoko egunien, hogetaxeixa eta zazpixa edo eztakitt, halakotxe egun baten; da, klaro, Bitorixan Eskoitzan hemen kalien sartu arte ezebe ezebe ez eben topau, ezebez. Gero bittartien aillegau jatien armak gorri aldekiei. Da, oiñ ezta ikusten halako automoillik, automoillek zien orduen kapote bategaz tapetan zienak, da holan zabal. Da izeten zien eztakitt

hamabost bat lagun edo, halakon bat kapiduko euen; da armok aillegau jationien, da eurak hemen Eskoitzan aillegau zienien militarrok Bittorixatik behera, aillegau zienien, etorri zien hiru automobil edo lau edo hortakuek; begira-begira egon nintzen, bista-bistan geukenhan bizi gintzen lekutik kamiñua danoi tta; begira-begira egon nintzen eta eta etorri zien, eta bueno. Eskoritzara edo ezkutau zien hemen basuetan eta holan. Da gero hurrengoko egunien militarrok, klaro, hona arte; ezebe-ezebe barik etorri zien kantuen; eta gero hor Apotzaga auzoi, hor dau auzo bat, horra aldera behetik gora (...) Gure aldetik, oiñ etxiokin tapauta dago dana baiña lehen zabal-zabalik euen, ez euen ezebe ta; brindau (blindau) bat eukien eta brindau hori han gure etxetik beheratxua geldittu, jarri zan, da bestiek be armok zelan aillegau jation, hor batien da bestien jarri zien, da militarrok euren zeroi, hona arte ez euen tiro bat be entzun barik, eta Apotzaga hartzen oizen. Enda han ezpalda baten, ostetik ez euen fan besteik, baiña burue erakusteagatik ezpalda batetik gora badoiez gora. Eta apurtxo bat goitxoraiño fan arte itxi eiñ utsien bakien; da gero han goitxora ixa arrimauez doiazela ekin-tsien tiroka hemen alde guztietatik gorrixok, eta hamarren bat edo han geldittu zien.

-Garbittu ein zittuen bestiek?

-Bai, bai. Hilda edo heriduek edo. Eta kamilleruek faten zien jasoten, eta kamilleruek jasoten faten zienien eurei be gogor ataketan utsien, eta eztakitt bi ala hiru illundu arte hantxe egon zien. Bai.

-Eziñ atara handik?

-Eske eurei ataketan utsien da.

-Osea ke harek heriduta eta hantxe jare ein bihar.

-Eztakit ba hilda euzen edo heridute egongo zien ala zela egongo zien.

Behintzet han ezpaldan zortzi bat edo hamarren bat, nik eztakit kontautakuan zenbat izengo zien baiña bai, han geldittu zien.

-Zuek hori danori etxetik ikusitta billurra etzeben eukitten?

-Ez, bentana ertzetik egoten gintzen begira. Ni mutikue zela nintzen pentsau bez holan peligroko gauzaik danik. Eta gaiña gure aldien artien ezebe-ezebe ez auen.

5. Etxea kanoiekin erasotua

- **Erref:** ESK-051/007
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:12:58. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Kanoiekin etxea erasotu zietenekoa kontatzen du; hala ere, ez zuten asmatu.

Transkripzioa

Gero bai, gero herriko hortxe emakume batzuketatik zera itxi ginduen, kañoiekin atakau barik itxi oskuen etxia. Amak, harek be ez euen ikusten koittauak peligroik eta. Aittak esaten ei utsen: "Ez zaittez fan, ez zaittez fan". Eta harek, miliziano aldekuok etorri jakun esnetan da; orduen esnealdiko gengozen, esnie ondo geuken orduen, eta eurei armozetako baldekara bat esne emun gutsien. Eta esan gutsen: "hortxe eruen geike kalera hor batzuei esnia?". "Bai, gu hemen armozetan gazen artien bai; gero tiroka ta hasiko die baiña bai". Holaxe fan zan, eta etxera ixa aillegauan atakau utsien gogor hemen aldetik. Orduen piñuik etzeon bat

be hemen. Eta atakau utsien da kurrirka baten sartu zan etxien baiña ez auen azertau, ez auen azertau.

6. Soldaduen istorioak

- **Erref:** ESK-051/008
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:14:09. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Behin, etxe barruan zeudela, tiroak entzun zituzten oso hurbil; izan ere, militarrek uste zuten etxetik egiten zietela tiro beraiei. Arratsalde batean, Apotzagatik bi lagun jaitsi ziren arineketa; soldaduek hori ikusi zuten, eta hogeit bat soldadu joan ziren Agustinen familiaren etxera, bi gorri etxean ezkutuan zituztela-eta. Menditik jaitsi ziren bi lagun haiek atxilotuta eraman zituzten. Ordurako, Eskoriatza eta Apotzaga hartuta zeuden.

Transkripzioa

-Gero beste kasu bat pasau jakun, gu ba etxien danok billurrez han, etxe barruan danok han, da aitta-amokin hiru mutiko, lau mutiko egongo gitzen han barruen da. Gero itxuria eurek, geuk be handik entzuten geuen pa-pa-pa! eta pa-pa-pa!, tiro eta zaratok eta. Hori nun ete dok?, bertantxe etxe onduan auen moduan tiraketan utsien, da eurak militarrek pentsetan euen geuretik tiraketan utsiela. Da hor emakume batzuk, estankue, esnie eruen geuntsenoi, esan utsen, hara erretirau zien hemen zien jefetxuok eta esan utsen goxien han egon dala hango zera eta han eztauela iño be ta; bestela kaiñonazoka etxiorri ekitteko preparauta erezen. Eta ez oskuen tiratu. Eta gero holan da halan, ba atsalde erdi baten edo, hor Apotzatik jatxi zien bi lagun añiketa baten gurera, eta hemen aldetik ikusi ein zittuen zelan bajatu zien, da hogein bat soldau etxien buelta guztien zera ein zan, eta gu han ittueko zulo baten billurrez ikara, eta urten nauen eta txakurtxo bat gauken da, txakurtxue txa-txau-txau, txa-txau-txau, ta. Urten nauen bentanara zulo batera ta soldauek holaxen erezen. Aittai esan nutsen: "Hemen soldauek dauku, e, eskopetekin, fusillekin begira ta". Aittorrek urten euen atia zabaldu ta urte utsien da. "¡Aquí hay dos rojos!" "No, son de aquí esos" esan utsen. "Abre, pues!", da urten utsien da bueno. Gero eurek kalera ekarri zittuen.

-Detenidu ein zittuen?

-Bai, eurek bixek hartu ta kalera, aber kalien iñok ezauketan dauen.

Ordurako kalioi hemen Eskoitzza hartuta euen eta Apotza bera be bai tta. Eta orduen eñ euen zeroi, orduko denporioi.

7. Gorriak inguruan

- **Erref:** ESK-051/009
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:20:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gorriei amorrua zieten, eta etxera joan zitzaizkien esanez apuntatzeko, gorrien aurka egiteko. Amak esan zien ez apuntatzeko. Behin soldaduek gorrien kontra zelan atakatu zuten kontaktzen du. Gorriek Aretxabaletako Santutxon zuten blindajea. Kanoiekin hormen gainetara igotzen ziren erasotzeko. Gero Kurtzetan jarri ziren, eta denera zabaldu zien, indartu egin baitziren. San Andres egun batean, eraso egin zutenean, mutil asko galdu zituzten. Zulo bat egin eta 80 mutil bertara bota ei zituzten.

Transkripzioa

-Eta gero beste hori, bezinue ta beste bat, haik be gure euen zera eiñ, gorrixen zeroi, ie!, amorro txarra utsen gorri aldeko jenti horri, zera ta, eta gurera jo euen goxian egunsentixan da. Apuntau biha dabela boluntarixo horrek hemendik bial..., kontra eitteko. Holan, da amak esate utsen: "Ez zaitteze apuntau, ez zaitteze apuntau, apuntau ez zaitteze eiñ". Hor (...) ezpaldie zan eta hor ezpaldan atzo hor geldittu zien zortzi-hamar bat, lurrera botata hor egon zien, eta ez zaitteze apuntau" ta. Itxurie etzien apuntau lagunketan. Egun hartan fan zien lagunketan militarroi hemen aldetik, da hau zoniau ezauketan euen parajiok eta espliketan utsien da, da gorrixoi handik atakau utsien, gorrixoi atakau utsien kaiñoiekin, horrek siete y mediokuek edo, diez y mediokuek, txikixauek igual izengo zien, kaiñoiokin atakau utsien, apur bat atzeratu zittuen. Gero blindaue eukien gorrixok Atxabaletan han Santutxo esaten jakon kanposantura bidien, handik hori topetan euen, ezpaldioi, eta eurok euren kaiñoiokin, muluen gaiñetan kaiñoiok eta gero montau eitten zien; eta haixe ataketako zerorri, ataketako daezela, justu justuen iges ein biher izen utsen zerorrek, blindau horrek eta etzauen harrapau. Gero berriz hor Kurtzetan jarri ei zien da, ba gero gauzie, hemen hau barranko hau danau hartu euenien, kamiñue librau euenien eurak ibiltteko, hor mendixetan bertan, bertantxe hor geldittu zien gorrixok, nazionalok geldittu zien hor, da gero gorrixok ba hor jarri zien danien, eta eurek be itxurie armamentuaz fuertetu ein zien gorrixok. Da gero San Andres egun baten danien atakau euen, hemen Billerealen da. Hor mutil asko galdu biher izen euen Billerealen, esaten euen moduen. Entzun nauen, eztaitt holan izengo zan baiña, zulo haundi bat eiñ eta larogei mutill hara bota zittuela arkalen gaiñien. Eta eurak danak alkarri tiroka hor Billerealen.

8. Kupoa entregatu beharra eta gosea

- **Erref:** ESK-051/015
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserri bakoitzari kupo bat jartzen zien. Arabatik jendeak ogia-eta ekartzen zuen. Beraiek garia zuten ugari eta hura entregatzen zuten. Gerra ondorenean gose asko zegoen eta irabazi gutxi. Alemaniako gerra zela-eta, ez zen inongo mugimendurik, dena geldu zegoen. Hori guztia bukatu eta gero guztia aldatu zen.

Transkripzioa

-Hor eratxo baten garixe entregau eraitten oskuen, basarri bakotxai tanto bat ipintzen oskuen, tanto bat, eta haraxe entregau eraitten oskuen. Arabatik jentiek ekarten euen al dauenak jentiek ogixa jan edo zerbaite ibiltten zien hemen kaleko jentiek eta, gutxi hartzen euenak eta. Baiña guk garixa ondo hartzen gauen, gero lana be asko eitten gauen, garittan oiñ hau urabarri denporiau beti garittan han ibiltten gitzen han bedarrak ebaten jorraixaz, eta gero haunditu eitten zaniien eskuekin ataraten ibiltten gintzen bedarrak. Bai, guk garittan lan asko eitten gauen eta garixa ondo hartzen gauen, bai.

-Garixa ta beste zer entregau bihar izeten zeuen?

-Ba garixa ba bakoitxai (...) oskuen kupo bat entregetako.

-Artua ta?

-Artue behiñ uste dot zerbaite entregau, artue ez, garixe nahixao, biher izeten euen. Gero urtiek be, haik urtiek txarrak zien, gerra ondorien gose haundixa egon zan, gose haundixa egon zan gerra ondorien. Irabazixe be gutxi, Alemaniako gerri-horregaz ez euen ezebe mobimenturik, ezebe-ezebez; dana egon zan holaxen, geldi-geldi-geldi.

-Ez aurrera ta ez atzera.

-Bai, bai, holaxen egon zan, geldi-geldi-geldi.

-Bueno ha akabau zaniien, martxan jarri zaniien gauzia gero bai, gero urtetik urtera igote-ban gauziak izugarri, baiña hori Alemaniako gerri-horregaz geldi-geldi egon zan gauzia.

9. Errotak itxita

- **Erref:** ESK-051/016
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserrian ez zuten goserik, beti zuten zer jan. "Servicio Nacional de Trigo"k errotak prezintatzen zituzten, hori gertatu baino 15 bat egun lehenago jakiten zutenez ahal zuten beste ogi-eta egiten zuten. Irina etxe barruan zuten gordeta. Inguruan zeuden errotan aipatzen ditu. Errotabarrin errota elektriko bat zuten baina han behintzat zerbait egin zezaketen. Lehen oso zaila zela gosea pasatzea kontatzen du, lur guztiak landuta zeuden eta, ez zegoen oraingo beste pinudi.

Transkripzioa

-Zuek basarrixan normalian goserik etzeben pasauko, ezta?

-Ez, ez, ez, goseik ez. Ogixa ezpaeuen artua. Oiñ txarrena izeten zan hor Servicio Nacional de Trigo jente ze horrek prezintau eitten zittuen errotak. Da jakin eitten euen hamabost bat egun lehenau zer etorkixen eta orduen zera eitten euen; eta guk geuk be haxe eitten geuen. Eta gero etxie gerra aurreko urtien barriztau geuen dana eta suelue euken hauxe letxe tarimiaz. Eta han komedoría edo zan lekuan hara jo ta pillatu eta zabal-zabal han eukitten gauen urunoi. Ez, goseik ez gauen guk pasau.

-Uruna etxe barruan gordeta?

-Bai, ezin leikien ixo errotan da, prezintau eitten utsien harririk eta.

-Ixo etxian eitten zebeñ?

-Ez, hor beheko (...), hor be errotie eukien, eta Bolibarren be bertan entradan lenengoko etxie errotie zan; da gero Ederlanetik bera goiazela ha be lenenegoko etxia errotia zan, da hemen errotak orduen asko ezen. Kastaiñixenen be bai, Maulandan be bai, uraz eitten dauen lana, hortaikuak.

-Horretan errotak prezintautu egon zienian, baten batek gabaz ixoten eben garirik?

-Bai, responsable errotarixa bera eitten zan; itxuria papelaz harrixoi lotzen utsien, da peleoi eziñ apurtu. Hor Errotabarri esaten jakon etxien, hor Ederlanetik beheratxua lehenagoko etxien, ha (...) beste errota elektriko bat enda baltztxua eitten zan haregaz ogixoi, baiña, laztxua be bai, baiña hantxe pasau eta eitten zan, eta gosia behintzet...

-Etixerako laiñ behintzat...

-Bai, etzan behintzat goseik... Gosie pasauko euen honek ezebe etzaukenak. Hemen oin danak piñu plantau die baiña lehen hori ezpada danoi be labranta, garixa eta zera; sasipe guztiok labretan zien orduan, bakotxak bittarte guztian quadro bat ezpada preparaten patatie edo gure dana hartzeko.

-Aprobetxau eitten zan.

-Bai, bai, al dauenak al dauena zera eitten euen, bai, bai.

-Baiña piñua ifiñi zanetik...

-Ez, ez, piñurik ez euen. Piñuoi hortxe bestaldien, honetxek eukien, atzekuok, atzo egon zintzenok, horretxek eukien piñui bat, beste bat, biren artien piñui sail eder bat.

10. Egurraren prezioak gora

- **Erref:** ESK-051/017
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gerra bukatu zenean egurrak asko igo zuen, 6.000 pezeta metro kubikoko. Orduan baserritar izan edo ez izan, denak hasi ziran pinuak ereiten.

Transkripzioa

-Beste piñurik ez zan hemen. Gerra akaau zanian, nik eztakitt, kanpotik itxuria egurrik ezin leikien sartu edo, Francok ez eukan tratatibideik edo nik eztakit ze pasauko zan. Egurrak igo euen ikaragarri! Egurra asko igo euen. Orduen xei milla pezetaraiño metro kubikue igo euen. Orduen xei milla pezeta zan, nik eztakitt gaurko zenbat baiña diru asko zan orduen.

-Urte daneko jornala.

-Orduen xei milla pezeta diru asko zan. Eta gero danok, basarritar eta eztien guztiok, danok piñu plantan, ta gero urte morduen egon zan karu holaxen piñuoi, da urte morduen, da jentiek al dauen danak piñu plantan. Eta oiñ eskiña guztiek piñu ikusten die.

11. Egurra eta zerrategiak

- **Erref:** ESK-051/019

- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:30:41. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Legutioko zerrara egur asko bidaltzen zuten. Aretxabaletan ere bazegoen beste zerrategi bat, baita Arrasaten ere. Egurrak kamioia zegoen lekura arte animaliek tiratutako gurdiekin garraiatzen zuten.

Transkripzioa

-Hemen Bilarrealeko batek zerrie potentie euken eta hara egur asko faten zan. Neuk be saldu nutsien eta beste batek be bai eta egur asko erueten euen. Gero Atxabaletan be beste zerra bat hor auen. Harek be zerrau euen. Mondrauen be Atxa izena euken batek serria potente euken, martxa haundixen, da hak be itxi utsen da.

-Egurra zela mobitzen zeuen, karreteruak ala kamioiak ala zela?

-Ba kamioia aillegetan zan lekua kamioia eta bestela ganauokin hartu burdixan eta burdixa kargauko euen lekura ekarri tta.

-Zeu ibili ziñan karretero?

-Ez, ni karretero enintzan ibilli. Guk baserrixen gizon bat lanien engaiñetako beste beti euki dou lana, bai.

12. Armagintzan lanean

- **Erref:** ESK-051/020
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:31:43. **Bukatu:** 00:36:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Gerra garaian zortzi hilabetez aritu zen Aretxabaletako fabrika batean lanean. Armagintzako fabrika zen, gerrarako armak egiten. Bertan burutzen zuten lana azaltzen zuen. Bernardino Zubia zen bertako ugazaba. Gerra denboran ugazabak diru asko irabazi zuen eta fabrika handitzeko erabili zuen.

Transkripzioa

- Zuk zeuk fabrian ez dozu lanik eiñ.

- Bai, gerra denporan ibili nintzen, zortzi hilebetien edo ibilli nintzen, baiña. Ez, gero gerrie akabau zan eta gerrie akabau zani en urten euen etxeko lanak eitten eta gehixao ez nintzen fan fabrikara.

- Ze fabriketan ibili zinen?

- Hor Zubia edo, Atxabaletan zerien ibilli nintzen. Oin uste dot...

- Zer egiten zeuen?

- Ni neu ibili nintzen denporan kañoiendako, obusendako espoleta muturrak eitten gittuen.

- Armak eitten zien?

- Bai, gerrarako, han ibili nintzen denporan, gerrarako espoleta-muturrak; ekartzen zittuen halakotxe barrak hau tamaiñuen eta ha barria ba halako zatixetan eta (...) zeuen da gero ha makiña baten figura bat ataraten utsien da gero beste baten beste figura bat ataraten utsien, eta gero neuk

eitten nauen lanien beste figura bat, ia han konpleto. Itten gauen erdixen holako zulo bat, zulo mehe-mehetxo bat orratza sartzeko tamaiñokue edo gehitxuao, ta harixa eukitten euen eta harixorregaz muturrien granadiak koloketako, eta euko euen pistoiak, ez dakit.

- Horrek zien kañoienezako?

- Bai.

- Fabrikiak zela euen izena?

- Izena? Bernardiño zan bertako uezaba ta. Ez dakit.

- Beste armarik eitten euen?

- Ez, han dana espoleta kontue ibili zan ni ibili nintzen denporan.

- Bernardiño esan dozu?

- Bernardiño bai, Zubia. Oiñ tallerroi haundi eindda dauke.

- Eta zu fabrika horretan ze garaitan egon zifien?

- Bai, azkenengo otubrien fan nintzen eta handixek abrilla gerra-denporan, ba abrilla edo hortxe.

-Hogeta hamaseiko urritik hurrengo urteko aprillera arte?

- Ez, gerria akabau baiño lehenao zerien, otubrien fan nintzen lanera.

- Hori izango zan hogeita hamaseixa. Gerria hasi zan urtia ala...

- Ez, hirugarren urtia, hiru urte ez euen ba aguentau gerriorrek?

- Holakoren bat, bai.

- Ba hoixe, hirugarren urtia.

- Hogeta hemeretxian orduan?

- Bai sartu gintzen, gero hemeretxixe.

- Osea ke espoletak eitten.

- Espoletak eitten, bai. Gero ha gastau zanien ba klaro, geldittu gitzen

danok alkarri begira, eta etxera ez giñuen iño be bieldu, baiña danok

alkarri begira. Ta haik gerra denporan uezabok diru asko atara euen, libre

atara euen, irabazi euen, da aumentetako zeorri, fabrikiori aumentetako;

eta gero zan ba, euen atzekaldie eta berau letxe terrapena (terraplena),

terrenua zerien da, ibilli gintzen, ni neu ibili nintzen denporan San Juanak

arte ibilli nintzen da abillidik, eta karro batzuekin mutilok ha lurra kendu eta

errekara eruten. Orduen ba iñok ez euen altoik eitten, da errekara eruten

geuen.

- Errekara uretara botatzen zuen ala erreka ezkiñan.

- Atxabaletako mataderixa atzekaldien euen errekara zeroi ta hara eruten

geuen lurroi. Bai. Ez euen iñok be ezer esaten da. Orduen gerra ondorien

lenengotan ezebez.

13. Arrasate eta Elgoibarko azokak

- **Erref:** ESK-051/022
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Domeketan mezara joaten ziren eta gero dantzari aritzen ziren plazan. Sasoi hartan Arrasateko azoka zen ospetsua, hilabeteko bigarren eta laugarren egubakoitzetan (ostiraletan) ospatzen zuten. Hainbat aldiz lekuz aldatu eta gero hara joateko ohitura galdu zen. Elgoibarrera joaten hasi ziren, hilabeteko azkeneko zapatuan izaten zen. Zumarragako Santa Luzia azokara ere joaten ziren.</p>

Transkripzioa

-Baiña jaixak edo...

-Jaixek bai, jai hartzen gauen biha dan moduen. Orduen oin baiño, gero elixa kontuan be dan-danok faten gintzen elixara, danok faten gitzen orduan. Eskoritzan basarri-auzo bat beste etzan izen be. Eskoritzza oiñ haundi eindda dau baiña orduen zenbat ezen ba? Eztaitt, hamabost etxe etzien egongo ganau bakoik, deste danak ganauekin bizi zien, danok bizi zien ganauekin, bat edo bi edo hiru... Hor kale-kalien be danok ganauekin. -Domeketan mezetara fango ziñen baiña gero plazan musikia egongo zan, ezta?

-Bai, musikie egoten zan bai, bai, bai. Dantzan neskokin neskatillokin han ibiltten gintzen.

-Domeketan dantzan.

-Bai, domekie aillegau begire, pozik.

-Ferixetara be fango ziñen. Zein zan hemen inguruan ferixarik hola...

-Ferixie ba orduen ferixa formala Mondrauen eitten zan. Mondrauen ferixa formala eitten zan. Enda gero politto-politto ha be oingo bizimodu belozidadie honek ha be kaliek eitteko apurtu euen, kendu euen, dana kendu euen, da gero handik estaziño ondora pasau euen ferixioi tta berez-berez gastau eindda, gastau eindda.

-Basarrixak ezkutauaz, ganauak ezkutauaz...

-Bai, bai, gastau ein da. Eta gero Elgoibarreraa hartu gauen martxia ta Elgoibarrera faten gintzen.

-Elgoibarren noiz eitten zan ferixia?

-Oin be ingo da, hillen azkenengo zapatua. Han ferixa bat, hillen azkenengo zapatua bakarrik.

-Mondrauen ze egunetan izaten zan?

-Lenengoko, Primer Vierneseko eguakotxien ez eta bestie, hamabostien behiñ. Primer Viernes ez; eguakotxa.

-Bigarren eta laugarren eguakotxetan?

-Bai. Mondraue era baten, bueno!, formala egon zan. Bai, bai, hemen inguruen onentxuena. Hor Bixkai aldetik be jente asko sartzen zan ba. Kanpazartik eta. Gero hemen inguruok be danok faten gitzen da. Ez, ez, ferixie formala eitten zan.

-Zuek Santa Lutzia Zumarragara fateko ohitturaik izaten zebein?

-Bai, fan izen gintzen hara be, fan izen gitzen, baiña astoik eta animalixaik eztou sekula euki be.

14. 80-100 litro esne eguneko

- **Erref:** ESK-051/023
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:41:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Ez zuten astorik eta esne kalera lehengo eskuetan eta gero gurdi batean eramaten zuten. 80-100 litro artean saltzen zituzten egunero. ganaduak emaitzak emateko ondo landu eta lan asko egin behar dela dio.

Transkripzioa

- Astorik ez zeuen eukitten?

- Ez, ez dou euki astoik.
- Eta zela erueten zeuen esnie kalera?
- Ba lelengo eskuetan eta gero karro baten erueten gauen.
- Karruan?
- Karrotxo bat Bittorixan enkargaute andriantzako ein nauen-eta. Larogei litrotik ehun litrora bittartien, hor ibiltten gintzen.
-Egunero?
-Bai, egunero. Baiña, klaro, jornaltxo bat atarateko hantxe-hantxe, eurekin lana ein bihar.
-Eta gobernau ein bihar.
-Gobernau ein bihar. Ganauei be eurei jarraiketan ez badutsazu ganauek be ez dauke produziñoik, ez daue emuten. Ez, eurei esana ondo ein biha jate. Gero klasiiek be izen bihe dau, kalidadiek be izen bihe daue. Batzuk, ganauek danak ez die igualak. Behi batek hamar litro emun ezinka egongo da ta beste batek hogeta hamar igual emuten dutsu. Hoixe diferentzioi dao ganauetan be.

15. Oñatiko Murgialdai ganadutegia

- **Erref:** ESK-051/024
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:41:31. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Oñatin bazegoen ganadutegi bat, Murgialdai. Eshedun txahal onak izaten zituen. Behin, truke bat egin zuten, txahal-trukea. kalera bizitzen joan arte izan ditu txahalak.

Transkripzioa

- Gero oin azken aldera Oñetin ganaderixa formalagaz egon zan ha, ez dakitt izena zelan euken, han harutzao bizi zan, arboloi haundi bat euken...
-Murgialdai.
-Murgialdai, hori da. Ez dait bera, hil dala entzun dot.
-Ez dakit hil dan. Ez dao holako ganaderixaik han.
-Oin ganauok kendu dittuela eta oiñaio entzun dot, ez dakit...
-Bai, holako zerbait pasau da, bai.
-Hantxe erosi nutsen txahal bat; erosi ez, neuk emun nutsen bat eta berak emun nusten beste txahal bat. Ta trukie ein geuen. Da haretxegaz suertia haundixe euki neuen. Umie ein euenien oso eshedun ona urten usten, ona esheduna. Eta gero berak be, ez dakit beratzi txahal edo zenbat hartu nutsen; beratzi uste dot hartu nutsela. Da danak eshedun onak. Bai, Franco hil zan ingurutxuen hamar-dozena bat urte oso onak hartu gittuen, esne askogaz. Bai.
- Noiz arte euki dittuzu ba behixak?
- Ba ointxe honaxe etorri arte. Bueno, lehen kendu gittuen zerak, baiña bategaz honaxe etorri arte egon gare.
- Zeuk zainketan zeuben?
- Andrie ta bixok. Hori be igualien ez gauen gure kendu, behi ona zan da. Beste behi batzugin, semie daukou hor zerien, hemendik fan, hor goratxuo fan da hor daukou geure zelaixe, sail haundixe daukou hor, da etxie formala indde dauka han semiek, enda hara. Eta berak ez euela bihar behirik esan oskun berak batzeko, berai be tokau bihe jakola batzen-ta,

berak ez dauela hori lanoi biher-ta. Kendu ein geuen, mataderixara kendu geuen.

16. Oiloen gaixotasuna

- **Erref:** ESK-051/025
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Emakume batek bere alaba umea izateko zegoela oilo bat ekarri zion Bilbotik. Agustinek eta lehendik ere 80 oilo zituztenez, emakume horrek Agustini eman zion oilo hori zaintzeko alabak umea izan arte. Lau egunetan 80 oilo hil ziren gaitz batekin, Ingalaterran ere zabaldua egon ei zen gaixotasun hura. Oilo bat zaintzearen oilo guztiak hil zitzaizkien.

Transkripzioa

-Ointxe arte ganauzaiñ.

-Behixak aparte, oillorik eta eukitten zittuein?

-Oilluek be euki gittuen batzuk, oilluekin be pozik eta ondo gaiñera gebitzen. Esnie erueten gauen etxe batera emakumiak famelixie eitteko euen, bilbatarra zan, da famelixie eitteko, orduantxe umia eitteko dauela amorrek Bilbotik ekarri utsen oillo bat. Hori ba, ni ezkondu, hirurogei urte setienbrien pasau zien ezkondu ziela ta, beste hiru bat urte lehenau zan hori kontuoi. Da ekarri utsen oillo bat, eta oilluoi, emakumioi bera hain kaxkala zan, oso normal-normala be etzan da, oilluoi ekarri oskun etxera geuri, aber euko geuen berak umie eiñ arte. Da hango txabola bat baeuken han, ortu-kasko baten (...) emunde euken da, "eukizu han txabolan", esan gutsen, da ha oilluoi eruen euen etxera, hill da jan daue, eta hazurrek ekarri zittuen bentanapera, sukaldeko bentanapera ekarri zittuen hazurrek, oilluoi jan da. Da etxetik aparte geuken oilluok, larogei oillo han geuken, da bat etorten jakun etxera, goxien jaraiten gutsenien eta eguna pasetan da lo itten hara faten zan beti. Da holaxen hazurrok..., ekin zien akabetan da lau egunien danak akabau jakun.

-Oilluak?

-Bai. danak akabau zien.

-Ze gaitz edo?

-Hor Ingalaterran agertu zan hori gatx hori eta handik, haik be ikusi euenien al dauen danak aprobezetara fan zien eta. Bilbon, esan dotsutena, emakumiorren amak Bilbon erosi euen oilluoi eta ekarri utsen alabiorri umioi eukitten dauenerako, familixie eukitten dauenerako zera eitteko. Eta berak geurera ekarri euen, da geurien guk halako gauzaik pentsau be ez eta ezta gutxiagorik be, da behintzet handitxik sartu jakun gatxa eta akabo. Danak akabau zien.

-Eta zeuenak be bai?

-Geuriek, danak akabau zien.

-haren oilua zaintzeagatik zeuenak galdu?

-Bai, Ingalaterratik ekarri euen Bilbora, haik be aprobezetan daukeneraiño, da merkera ifiñi eingo euen Bilbon saltzen, da amorrek Bilbon oilluoi erosi euen eta ekarri utsen alabiorri, baiña bizirik, ondo. Baiña hak gatxa aldien ekarri.

-Gripe famoso hori izengo zan.
-Halakotxe gatxen bat sartuko jakon da. Aide, gaiñera. Aaaa! Eeee! ta, gora begira halakotxe arnasa batzuk botaten zittun da, plaut!, akabetan zien eta kitto!
-Gero ze ein ziñuein, ere edo enterrau edo?
-Lurpien enterrau nittuen danak.
-Atzera berriz ifiñi zittun?
-Bai, ifiñi nittun bai gero. Txabolioi etxetik aparte daukat eta desifestau ondo ta. Ifiñi gittuen, baiña aurretik geuken moduko klase holan onik etxaten suertau. Diferentzie haundixe dau, behixetan be bai ta oilluetan be bai. Bai, bai.
-Klase onak eta klase hain onak eztienak.
-Bai, bai.

17. Eztei-bidaian Donostiara eta Bilbora

- **Erref:** ESK-051/027
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:52:38. **Bukatu:** 00:53:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Eztei-bidaian Donostiara joan ziren hiruzpalau egunetara eta gero Bilbora lau-bost egun pasatzera.</p>

Transkripzioa

-Ezkondutuen ziñenian Viaje de Noviosera nora joan ziñen?
-Be, Viaje de Novios, ezebez. Donostiaraiño fan gitzen eta Donostian pasau gittuen hiru-laun bat egun, eta gero handik Bilbora. Bilbon beste lau-bost bat egun pasau gittuen edo. Handik basarrira ta beti basarrixan.
-Donostiako eta Bilboko ze rekuerdo daukatzue? Ze zan, lenengo aldixa Donostiara faten ziñana?
-Ze esangotsut ba.

18. Itsasoa lehendabizikoz ikusi zuenekoa

- **Erref:** ESK-051/028
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:53:16. **Bukatu:** 00:55:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Bere anaia "Estrecho de Gibraltar"en soldadu zegoenean paper batzuk behar zituen handik etxera bueltatzeko. Orduan Donostiara joan zen paper horien bila eta orduan ikusi zuen lehendabizikoz itsasoa.</p>

Transkripzioa

-Itsasua noiz ikusi zeuen lenengo aldiz?
-Ba itsasua ikusi neuen, anaia Estrecho Gibraltar edo han auen soldau enda

hemen kamillero ibilli zan zerien gerra-denporan nazionaloi lagunketan. Ni baiño bi urte zarraua zan baiña Durangoraiño fanda ibilli zan lagunketan, hartu zeuen aurrian da jarraitu utsien haraxeaiño. Enda gero han, itxurie balixo utsan denporiak, da papelok in gittuen, herrixen ein gittuen papelok da ha libretako Donostian eztaiz zeñeana, beste lagun batek ekixen enda ezaupide haundixe euen (...), da holaxen. Esku hutsik ez fateagatik usokume bi zuri-zurixek, hain polittek eruen gittuen kaja baten eurendako hara, da haritxeri eruen gutsen papelok libretako, anaioi libretako, ia etxera etorteko. Eske gure soldauxkariok izen zien, e. Hak ein (zittuen), eztaiz zazpi urte edo zortzi urte edo ze eiñ euen. Da bueno-bueno. Da holaxen hor Donostiako zerorrek papelok belaxe eiñ oskuen etortzeko ta halaxe etorri zan etxera. Ta orduentxe lenengoko aldiz.

19. Zumaiaiko tren-istripua eragin zuten haize-boladak

- **Erref:** ESK-051/029
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:55:19. **Bukatu:** 01:00:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Bere anaiak behar zituen paper batzuk zirela-eta Donostiara joan behar izan zuen behin. Donostiatik bueltan, kostaldeko trenetik, Zumaiaiko tren-istripua ikusi zuen, trena itsasora jausita. Bezperan haize bortitzak egon zirela kontatzen du. Triskantza handiak eragin zituen haizeak. Trena zelan geratu zen deskribatzen du, berak ikusitakoa. Trena elektrikoa zenez, indar barik gelditu zen. Pertsona batzuk itota hil ziren.

Transkripzioa

Zumaian orduentxe ikusi neuen trena jausitta itsesora.

-Akzidente famosua, e.

-Hor aurreko illunkeran, nafar-hegoia hortik etortten da, da, io!, inddartsu ibilli zan atsaldien, zapatu atsalde baten. Da gabien kanbixau zan goittik, da bazterra guztiok eruen biher da, holaxen guri etxien goiko bentanok jota zabaldu zittuen berak, maratillok apurtu eta zabaldu zittuen, da luzeruek euen eta luzerue hartu ta aidien eruen euen zerorrek eta. Guri ez zoskun kalteik bape eiñ, hoixe besteik eta. gero alanbriek eta postiek. Zentraltxo bat hor kalien euen eta hortik surtiduten gitzen gu argixaz da, holan enda ba asko lekutan apurtu zittuen postioik eta alanbriok eta gabian ibilli zan haxia billurgarri han Zumaian trena bota euenien. Billurgarri ibilli zan haxia.

-Zuk ikusi ziñuen itsasora jausitta?

-Bai.

-Ikusi neuen, bai, hiru bagoi, hiru kotxe, bi ia goraiño beteta urez eta bestie erdixeraiño edo holan atzeratxuao han buruz behera; hantxe ezen, bai.

-Baiña Zumaiaara nundik fan ziñen ba, Zumarragatik ala Debatik?

-Kostako trenoi.

-(...). Zuek San Prudentziotik zuzen?

-Bai, gu Maltzagara fan, Maltzagan beste trena hartu eta handik faten gitzen Donostiara.

-Eta orduan trenetik ikusi zeuen trena uretan?

-Hori da.

-Ze urte zan, goguen daukotzu? Hori zan anaie libraittera fan ziñanian?

-Bai. Edozein modutan be gerrie akabauta gehixen be urte bi edo.

-Berrogeta bata inguru horretan?

-Halan izango zan. Eztotsut esango ze denpora izengo zan baiña. Urte bi barru behintzet bai. Belaxe ein gittuen papelok eta. Bai.

-Eta itsasua be orduan ikusi zeuen lenengo aldiz.

-Bai, han ezen bi bagoi. (...) Marea baja euen ala altu ala zela euen baiña. Bi ezen uretan bertan tapauta eta bestia erdixe, dana etzan jausi, e. Itxurie geldittu zien, atzetik beste bi edo hiru kotxe illaran geldittuko zien atzetik zutik.

-Haiziak bota eben?

-Bai. Itxuria makiniek engantxauta doiazela haize billugarri batek urten euen illunkaran, da hori azkenengo trena, Donostiara doiena. Klaro orduen euen beste gauza bat, oin bi ordu aurrera daroiu eguna, eta orduen bi ordu atzerago euen eguna, da illunetan oiazen, illunetan gabien, oingo hamarrak edo izengo zien han jausi zienak zerien. Itxurie haixe billurgarrixorregaz inddarra fan in jakon trenorri. Elektrikue. Bai, inddarra fan. Eta inddarra fan jakonien ba hantxe geldi, geldi, ez atzera eta ez aurrera. Da bera han zubi gaiñien; apur bat sartuta euen barrura zubixen, uren parien aurreratxua; eta itxurie makiñiek pixu haundixe euki tta, makiñiorri kataiek apurtu berai engantxauta eukenoi eta bi kotxe, hiru kotxe, bi uretara ta hirugarrena erdi txistxilixka han.

-Makiñia bertan?

-Makinia bertan geldittu zan, itxuria.

-Zer euen, aldapan trenbidia?

-Ez, lau-lauen euen, ura bardiñ-bardiñ-bardiña euen lekuan. Bai, halaxen euen orduen. Lenengoko aldiz.

-Eta miñik hartu euen inork?

-Bai, bai itxurie hil zien banakan batzuk, eztakit zenbat baiña. Klaro, antxiñako kontue da hori.

-Bai, bai, korreue. Normal.

20. Lehen automobilak

- **Erref:** ESK-051/030
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:00:17. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Inguruan agertu zen lehen automobila Eskoriatzako mutil batena zen, Arantzazurako autobus zerbitzua betetzen zuena. Poliziak Gasteiztik motorrez etortzen ziren Arrasateraino. Horrekin lotutako istripu baten kontakizuna kontatzen du.

Transkripzioa

- Orduen zer euen ba, ez euen automoillik, e. Lehenengoko automoillek, agertu zienak, haxe Oñetiko, Eskoritzako semie zan Arantzazura ta bueltaka ta ibiltten zienak, automoilloi ibiltzen zanoi. Beste automoillik ez euan orduen. Orduen honek poliziok, motorrien ibiltten dienok etorten zien

Bitorixatik Eskoritzara edo Mondraueraiño etorten zien. Ta belozidadie be formala ekarten euen, belozidadien bixkor etorten zien. Ta lehenengo (...) rotundue ein ddauen leku-lekuen, han auen zubixa, ta zubixa auen goittik behera zuzen eta gero hola derrepentien, e, eta gero aurrera holan, eta han ze bat euken. Eta lehenengokua raaaa! etorri zan ta hartu euen rraaaa!, fan zan. Eta bigarrena atzetik berrogeta hamar metrora-edo baetorren eta hak hankiaz zapaltzen dauen martxie emuteko, zutik egoteko (pieza), haregaz ezkiñatxoko harrixe i ikutu utsen, eta ikutu utsenien han jausi zan txatxilipurdika, enda fan nitzan, lehenengo neu, ta hantxe eta konozimendu barik eta erlojue eskuturrien han euken ta erlojuoi martxan ondo eta bera konozimendu barik, geldi. Enda baten bat etorriko ete dan, baten bat etorriko ete dan, baten bat etorriko ete dan, eta iño be etzan agerketan, eta beste emakume bat edo agertu jaten, orduan Apotzatic betozen errekaun batzuk egiñien ta haraxe, ta bixok begira hari, ta gu bixok hari ezebe ezin iñ eta hantxe egon gitzen begira. Ta halako baten kamioi txikitxo bat lastuaz hor dator goittik behera; geldittu gauen eta han gauken lurrien eta txoferroi be jatxi jakun ta Mondraueraiño erueteko. Holan ebatu ta hasi gitzen. Eta orduantxe behetik gora lagunoi etorren, etorri jakun. Eta beraz gero fan zien Mondrauera edo ez dakit nora. Baiña, Bitorixatik jasten zien bi motorista egun danetan.

21. Argindarra: bi zentral

- **Erref:** ESK-052/002
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:01:51. **Bukatu:** 00:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argindarra. Olasarre zentrolean sozio ziren, hantxe zegoen presa; hura nola hondatu zen. Argi gabe zeuden. Goribarriko zentrala ere bazegoen, baina ez zuen indar handirik.

22. Urrik gabeko garaia

- **Erref:** ESK-052/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Soldadu zegoela ipini zuten ura etxean. Zuloa egin zuen, eta ura topatu zuen. Depositua egin zuten. Ordura arte errekan egiten zen dena. Arropa nola eramaten zuten. Astorik ez zuten, baina behar ere ez gauzka garraiatzeko, etxearen bueltan zituztelako soroak.

23. Ur handiek harrapatutako idiak

- **Erref:** ESK-052/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:10:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardoa garraiatzen lan egiten zuen mutil baten kontuak: hodei zaparradak harrapatu zuen Bergaratik bueltan; gero, idiak lotzen ari zela, erreka sartu zen ukuilura. Idiari buztanetik helduta irten zen, igerian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com